

EUSKARA ATZERRITARREI GERTURATZEKO ESKUKO HIZTEGIA ESKURAGARRI BIZKAIKO ZORTZI UDALERRITAN

- Alkarbidek euskarazko eta beste hainbat hizkuntzako oinarritzko hitzak jasotzen dituen eskuko hiztegia argitaratu du Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin.
- Orotara, 11 hizkuntzatan prestatu dira hiztegiok: gaztelania, ingelesa, frantsesa, errumaniera, arabiera, txinera, portugesa, wolofa, errusiera, katalana eta galegoa.

Etorkinak euskarara hurbil daitezen baliabideak eskaintzeko asmoz, eskuko hiztegien edizio berria prestatu eta argitaratu du Alkarbide Bilguneak Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin.

Eguneroko bizimoduan lagungarriak izan daitezkeen oinarritzko hitz eta esaldiak jasotzen dira hiztegien, eta bilaketa erraztearren, gaika antolatuta daude: agurrak, denbora, norabideak, ohiko hitzak, garraioak, pertsonak, jatekoak eta edatekoa, egunak, zenbakiak, etxea, lekuak, dirua, sorlekuak, komunikatzeko euskarriak.

Guztira, Bizkaiko zortzi udalerri (Basauri, Bermeo, Berriz, Gernika-Lumo, Markina-Xemein, Portugalete, Zierbena eta Zaldibar) hartu dute parte egitasmo honetan, eta herri bakoitzeko etorkinen jatorria zein den kontuan hartuta, bakoitzak erabaki du zein hizkuntza jaso nahi duen hiztegieta.

Orotara, 11 hizkuntzatan prestatu dira hiztegiok: gaztelania, ingelesa, frantsesa, errumaniera, arabiera, txinera, portugesa, wolofa, errusiera, katalana eta galegoa. Euskarazko hitz eta esaldiei dagokienez, batuaz edota bizkaieraz jaso dira, betiere tokian tokiko aldaerak ere kontuan hartuta.